DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Urdaneta, 13 - Tel. 010 - 943481000 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Akordio proposamena
TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:
ONARTUA
Propuesta de acuerdo a
JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:
APROBADA
TGB Bilkura
Sesión JGL
2026/04/21
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a
Olatz Yarza Garagorri

Exp. 2026/024

DONOSTIAKO HONDARTZETAN DENBORALDIKO ABONATUEN ARRETA ETA ITZALKINETAKO, AULKI ETA ETZAULKIEN EGUNEKO ALOKAIRUAREN ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN A ABONADOS DE TEMPORADA Y ALQUILER DIARIO DE PARASOLES, SILLAS Y TUMBONAS EN LAS PLAYAS DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**
1. KONTRATUAREN XEDEA Kontratuaren xedea jarraian zerrendatuko diren zerbitzu publikoak ematea da, ingurumena errespetatuz, Donostiako Kontxako, Ondarretako eta Zurriolako hondartzetan: **a)** Denboraldiko itzalkinen (toldoen, eguzkitakoen eta karpen) abonatuei arreta ematea. **b)** Hondartzetan jarritako elementuak eta altzariak muntatzea, desmuntatzea, mantentzea, zaintzea eta biltegiratzea, baita garraiatzea ere. **c)** Toldoak, Aulkiak eta etzaulkiak eguneko alokairu modalitatean alokatzeko zerbitzuak ematea eta kudeatzea: Ondarretan karpak, eguzkitakoak eta toldoak; Kontxan toldoak eta aulkiak; Zurriolan etzaulkiak (eguzkitakoa aukeran) eta toldoak. Enpresa esleipendunak agiri honen 2. eranskinean zehaztutako materiala jarri beharko du zerbitzua emateko. Hondartza denboraldiko zerbitzu horien esleipenaren eraginkortasuna Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak ezarritako araudiak eta mugek baldintzatuko dute. Portu, Itsas Gai eta Itsasertzeko Zuzendaritzak 2025-2028 urteetarako indarrean duen baimena erantsi da 5. eranskinean. Urteko baimena esleipendunari emango zaio planoetan jasota elementu guztiak Portuen,	**1. OBJETO DEL CONTRATO** El contrato tiene por objeto la prestación de los siguientes servicios públicos, de manera respetuosa con el medio ambiente, en las playas de La Concha, Ondarreta y Zurriola de la ciudad de Donostia/San Sebastián: a) Atención a los abonados de los parasoles de temporada (toldos, sombrillas y carpas). b) La realización de los trabajos de montaje, desmontaje, mantenimiento, conservación y almacenaje de los elementos y mobiliario instalado en las playas, incluido el transporte. c) La prestación y gestión de los servicios de alquiler diario de toldos, sillas y tumbonas: en Ondarreta carpas, sombrillas y toldos; en La Concha toldos y sillas; y en Zurriola tumbonas (sombrilla opcional) y toldos. La empresa adjudicataria deberá aportar el material detallado en el Anexo n.º 2 del presente pliego para la prestación del servicio. La eficacia de la adjudicación de estos servicios de temporada en las playas se condiciona a la regulación y límites establecidos por la Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral. Se adjunta en el Anexo 5 la autorización vigente de la Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral para los años 2025-2028. La autorización anual será facilitada en planos al adjudicatario para poder llevar a cabo la

7899n IX 2013-11

Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzaren baimenean jasotako baldintzetan instalatu ahal izateko.	instalación de la totalidad de los elementos en las condiciones recogidas en la propia autorización de Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral.
2. DENBORALDIKO DATAK Itzalki guztien denboraldia ekainaren 15ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da, biak barne. Udalak denboraldiaren data horiek luza ditzake. Horrek kontratua aldatzea ekarriko du, bai gorantz, bai beherantz, egin beharreko daten aldaketaren arabera, AKPAren ezaugarrien taulako 21. ataleko baldintzetan. Itzalkin guztiak jartzea eta kentzea kontratuaren arduradunarekin adostuko da, eta instalazio hori aurreratzea edo atzeratzea ekar dezake, asteburua hurbil dagoelako. Aldaketa horiek ez dakarte inolako aldaketa ekonomikorik alderdientzat. Denboraldi bakoitzeko behin betiko datak gutxienez denboraldiko elementuak muntatzen hasi baino bi hilabete lehenago jakinaraziko zaizkio esleipendunari. **3. ZERBITZUEN ORDUTEGIA** Jendaurreko ordutegia 10:00etik 19:30era izango da. Ordutegi horren barruan toldoen, eguzkitakoen, karpen eta aulkien eguneroko alokairua barneratzen da. Enpresa esleipendunak zerbitzua etengabe eman beharko du, atsedenaldirik gabe; hortaz, enpresa esleipendunak horren arabera antolatu beharko ditu bere langileak. Etzaulkiak Zurriola hondartzan bakarrik alokatuko dira, 10:30etatik 19:00etara. Zerbitzu guztiei dagokionez (itzalkinak, aulkiak eta etzaulkiak), buruzagitzako langile arduradunak une oro egongo dira aurkitzeko moduan, 08:00etatik 20:00etara.	**2. FECHAS DE TEMPORADA** La temporada de la totalidad de los parasoles se inicia el 15 de junio y finaliza el 30 de septiembre, ambos inclusive. Las fechas de temporada las podrá modificar el Ayuntamiento. Esto supondrá modificar el contrato tanto al alza como a la baja según la modificación de fechas a llevar a cabo en los términos del apartado 21 del cuadro de características del PCAP. La instalación y retirada de la totalidad de los parasoles será consensuada con el responsable del contrato, pudiendo suponer adelantar o retrasar dicha instalación por la cercanía de fin de semana. Dichas variaciones no conllevarán modificación económica alguna para ninguna de las partes. Las fechas definitivas en cada temporada serán notificadas al adjudicatario al menos con dos meses de antelación al inicio de del montaje de las instalaciones de la temporada. **3. HORARIO DE LOS SERVICIOS** El horario diario de atención al público será de 10:00 a 19:30 horas. Este horario contempla el alquiler diario de toldos, sombrillas, carpas y sillas. La empresa adjudicataria deberá prestar el servicio de forma ininterrumpida, sin pausas de descanso, para lo cual la empresa adjudicataria organizará su personal según considere. El alquiler de tumbonas solo será en la playa Zurriola en horario de 10:30 a 19:00 horas. En cuanto a todos los servicios (parasoles, sillas y tumbonas), el personal de mando responsable deberá estar permanentemente localizable entre las 08:00 y las 20:00 horas.

7899n IX 2013-11

Zerbitzuen ordutegiak kontratuaren arduradunak soilik finkatu eta aldatzen ditu.	Los horarios para la prestación de los servicios los fija y modifica exclusivamente el responsable del contrato.
4. ZERBITZUAK ETETEA	**4. INTERRUPCIÓN DE LOS SERVICIOS**
Udalak, kontratuaren arduradunaren bitartez, enpresa esleipendunari zerbitzua eteteko baimena eman diezaioke, baldintza meteorologikoak daudenean.	El Ayuntamiento, a través del responsable del contrato, podrá autorizar a la empresa adjudicataria la interrupción de los servicios, en casos de malas condiciones meteorológicas.
Ondorio horietarako, enpresa esleipendunak erreten bat izango du, hondartzako erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duena eguraldi aldaketa bortitzetan, eta, era berean, zerbitzua berehala normalizatuko dela bermatuko duena.	A estos efectos, la empresa adjudicataria dispondrá de un retén que garantice la seguridad de los usuarios de la playa en aquellos supuestos de cambios bruscos de tiempo, y que garantice asimismo la rápida normalización posterior del servicio.
Kontratuaren ardura duen zerbitzuak laguntza emango dio esleipendunari, hondartzako megafonia-sistemaren bidezko mezuen bidez, hondartzaren hustuketa arintzeko baita hala nahi duten toldo eta eguzkitakoen esleipendunei bidalitako mezu eta alerten bidez ere.	El servicio responsable del contrato dará asistencia al adjudicatario mediante mensajes por el sistema de megafonía de la playa para agilizar el vaciado de la misma así como mediante mensajes y alertas enviados a los adjudicatarios y adjudicatarias de toldos y parasoles que así lo quieran.
5. ZEHAZTAPENAK	**5. DETERMINACIONES**
5.1. ANTOLAKETA ETA BANAKETA	**5.1. ORDENACIÓN Y DISTRIBUCIÓN**
Hondartzak zerbitzu hauek emateko antolatzea Udalaren eskumena da. Antolaketa hori indarrean dagoen legedian (22/1988 Kostaldeen Legea eta hura garatzen duen 876/2014 E.D. Araudi Orokorra) ezarritako ildoen arabera egiten du Udalak, eta Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak onartu behar du.	La ordenación de las playas, a efectos de la prestación de estos servicios, es competencia del Ayuntamiento, que la efectúa bajo las directrices establecidas por la normativa vigente (Ley 22/1988 de Costas y el R.D. 876/2014 Reglamento General de Costas que la desarrolla) y sometido a aprobación del Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral.
Hondarrean jarri beharreko instalazio guztiak desmuntagarriak izango dira, eta okupazio planoan emandako zehaztapenen arabera jarriko dira (agiri honen 1. eranskina).	Las instalaciones sobre la arena serán todas desmontables, y se ubicarán conforme a lo especificado en el plano de ocupación (Anexo nº 1 del presente pliego).
Etzaulkiak alokatzeko zerbitzua Zurriolako hondartzaren erdiko arranparen pareko eremuan bakarrik emango da eta gehienez 200 unitate izango dira.	El servicio de alquiler de tumbonas se limitará exclusivamente a la zona situada a la altura de la rampa central de la playa de Zurriola, con un máximo de 200 unidades.

7899n IX 2013-11

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Urdaneta, 13 - Tel. 010 - 943481000 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

5.2. ZERBITZUEN IRISMENA	5.2. ALCANCE DE LOS SERVICIOS
Itzalkinen denboraldiko abonuaren eta agiri honen 1.c) ataleko itzalkinen, aulkien eta etzaulkien eguneko alokairu modalitatearen barruan honakoak sartuko dira: elementuak jartzea, muntatzea, zaintzea eta desmuntatzea Kontxako, Ondarretako eta Zurriolako hondartzetan (etzaulkiak Zurriolan soilik).	El servicio de parasoles de abono de temporada y la modalidad de alquiler/día de los parasoles, sillas y tumbonas (detallado en el punto 1c) comprenderá la aportación, montaje, atención y desmontaje en las playas de La Concha, Ondarreta y Zurriola (las tumbonas solo en Zurriola).
Muntatze- eta desmuntatze-lanak enpresa esleipendunaren giza baliabideekin eta baliabide materialekin egin beharko dira.	Los trabajos de montaje y desmontaje se deberán realizar con los medios humanos y materiales de la empresa adjudicataria.
Instalazioak muntatzea, desmuntatzea eta kentzea ez dagokie bakarrik itzalkin, aulki eta etzaulkiei; haatik, horren barruan sartuta daude ere hondartza hobeto antolatzeko edota erabiltzeko elementu osagarriak: hala nola, sartzeko eskailerak, igarobidea, hankak garbitzeko tronadurak, zaintza dorreak eta hondartzako eta itsas pasealekuko seinaleak. Azken elementu hauek Donostiako Udalak hornituko ditu eta Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak baimendutako sasoiko zerbitzuen planoetan definituko dira muntaketa baino hilabete lehenago gutxienez .	El montaje, mantenimiento, desmontaje y retirada de las instalaciones incluye, no sólo las específicas de parasoles, sillas y tumbonas, sino también aquellos elementos auxiliares destinados al mejor uso y/o ordenación de la playa, tales como: escaleras de acceso, pasillos, tarimas de lavapiés, torres de vigilancia y señalética de la playa y del paseo marítimo. El suministro de estos elementos correrá a cargo del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián y serán definidos en los planos de servicios de temporada autorizados por la Dirección de Puertos, Asuntos Marítimos y Litoral al menos un mes antes del montaje.
Muntaketaren espezializazioa edo makineria oso zehatza dakarten instalazio berrien muntaketa kontratuaren aldaketaren xede izango da.	El montaje de aquellas nuevas instalaciones que supongan una especialización del montaje o de maquinaria muy concreta, supondrá la modificación del contrato.
Hondartza hobeto antolatzeko edota erabiltzeko elementu osagarriak ekainaren 1ean muntatu beharko dira, eta desmuntaketa urriaren 1etik 7ra egin beharko da.	El montaje de los elementos auxiliares destinados al mejor uso y/o ordenación de la playa se deberá realizar para el 1 de junio y el desmontaje se hará en el plazo del 1 al 7 de octubre.
Halaber, enpresa esleipenduna arduratuko da Donostiako Udalaren jabetzakoak diren lau zaintza-dorreak muntatzeaz eta desmuntatzeaz. Muntaketa ekainaren 1ean egin beharko da eta desmuntaketa urriaren 1etik 7ra bitartean egingo da. Horien mantentze-lanak Donostiako Udalak egingo ditu.	Asimismo, la empresa adjudicataria se encargará del montaje y desmontaje de las cuatro torres de vigilancia que son propiedad del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián. El montaje deberá realizarse para el 1 de junio y el desmontaje se hará en el plazo del 1 al 7 de octubre. El mantenimiento de las mismas, correrá a cargo del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.
Aulkiak egunero alokatzeko zerbitzuari dagokionez, eguneroko ohiko prestazioaz gain, aulkiak ere alokatuko dira Aste Nagusiko su artifizialen	En cuanto al servicio de alquiler diario de sillas comprenderá, además de la prestación normal diaria, el alquiler de las sillas durante en el concurso de

7899n IX 2013-11

lehiaketan.	fuegos artificiales de Semana Grande.
Denboraldi osoan, enpresa esleipendunak bitartekoak eta dagokion antolakuntza sistema jarriko ditu bere kargura, eguneko jardunaldia amaitzean zerbitzuko materiala (itzalkiak, aulkiak eta etzaulkiak) jasota gera dadin, jendaurreko zerbitzua amaitu eta ordubeteko epean. Itzalkinei dagozkien aulkiak (hiruna itzalkineko) zutabeetara lotuko dira giltzarrapoen bidez.	A lo largo de toda la temporada, la empresa adjudicataria proveerá a su cargo los medios y el sistema organizativo correspondiente de forma que se garantice la recogida del material del servicio (parasoles, sillas y tumbonas) una vez terminada la jornada diaria en un plazo no superior a una hora, desde el fin de la jornada de atención al público. Las sillas correspondientes a los parasoles (tres por parasol), quedarán atadas a los postes mediante candados.
Lan horien helburua da, alde batetik, materiala ez barreiatzea, ekintza bandalikoak saihestea eta marea igotzean aulkiak ez eramatea, eta, bestetik, zerbitzuko ordutegietatik kanpo, hondartzak txukun geratzea. Era berean, hondartza jasota geratu beharko da, gauez egiten diren bahetze lanetarako eragozpenik egon ez dadin.	El objetivo de estos trabajos es evitar la dispersión, desaparición por subida de mareas, actos vandálicos, que pudieran afectar a los materiales y, de otra parte, ofrecer unas playas ordenadas fuera de los horarios normales de servicio. Asimismo, la playa deberá quedar recogida de manera que no se entorpezcan los trabajos nocturnos de cribado.
Lan guztiak egitean, ahaleginak egingo dira jarduera osoak egindako ingurumen inpaktua ahal bezain txikia izan dadin.	Todas las tareas se realizarán intentando minimizar al máximo el impacto ambiental generado por toda la actividad.
Enpresa esleipendunak prezioak, ordutegiak eta bestelako informazio garrantzitsua jakitera emateko kartelak jarri beharko ditu hondartzetan, Euskal Automia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialetan, Udalak horien edukiari, diseinuari eta kokalekuari buruzko adostasuna eman ondoren.	La empresa adjudicataria deberá instalar en las playas carteles indicativos de los horarios, precios y demás información relevante, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) y previa conformidad del Ayuntamiento sobre su contenido, diseño y emplazamiento de los mismos.
Enpresa esleipendunak gaueko zaintza zerbitzua eduki beharko du, gutxienez 8 orduz eta 22:00etatik 06:00etara, eta zaindari bana jarriko du horretarako hiru hondartzetan, honako data hauetan:	La empresa adjudicataria deberá disponer de un servicio de vigilancia nocturna, en jornada mínima de 8 horas en las tres playas y en horario de 22:00 h a 06:00 h con carácter mínimo, de un vigilante en cada playa en las siguientes fechas:
- San Juanetan, 22an eta 23an.	- San Juan, los días 22 y 23
- Aste Nagusian: egunero.	- Semana Grande; todos los días.
- Ekaina, Uztaila, Abuztua eta Irailean: ostiralak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak.	- Junio, Julio, Agosto y Septiembre: viernes, sábados domingos y festivos.
5.3. MATERIALAK	**5.3. MATERIALES**
Erabili beharreko materialak egoera onean egongo	Los materiales a utilizar deberán estar en perfecto

7899n IX 2013-11

dira kontratuaren arduradunarekin bat etorrita, eta enpresa esleipendunaren kontura izango dira.	estado a criterio del responsable del contrato y serán a cargo de la empresa adjudicataria.
Itzalkinak bat etorriko dira Donostiako Udalaren ohiko modeloekin, merkatuko modelo berrienen artean egongo diren eguzkitakoen kasuan izan ezik. Itzalkinek izan beharreko ezaugarriak agiri honen 2. eranskinean zehazten dira.	Los parasoles se ajustarán a los modelos habituales del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, con la excepción de las sombrillas que estarán dentro de los modelos más actuales del mercado. Las características de los parasoles se detallan en el Anexo 2 del presente pliego.
Etxolak eta alokatzeko guneak: Kontxako hegalean, materiala biltzeko etxola eta aulkiak alokatzeko guneak esleipendunaren kargura izango dira, baita Ondarretan eta Zurriolan jar daitezkeenak ere. Euren kokapenak kontratuaren arduradunak zehaztuko ditu.	Casetas y puntos de alquiler: la caseta para almacén de material y puntos de alquiler de sillas que se instalen en el voladizo de La Concha será a cuenta del adjudicatario, al igual que las que pudieran instalarse en Ondarreta y Zurriola. La ubicación de estos puntos será detallada por el responsable del contrato.
Enpresa esleipendunak ingurumenean inpaktu txikia duten materialak hautatu beharko ditu (bai fabrikazioari, bai erabilerari, bai beren bizi amaierari erreparatuta, Plegu Tekniko honek zehaztutako baldintza orokorrak betetzeaz gain. Egurrezko materialak erabiliz gero, debekatuta egongo dago CITESen (*Convention International Trade of Endangered Species*) jasotako espezie mehatxatuak erabiltzea, eta elementu berrietako (ez bigarren eskukoetako) egurraren jatorria (espezieak eta jatorria) erakusteko dokumentuak eskuragarri izan beharko dira nahitaez. Plastikozko materialak erabiliz gero, materiala markatuta egongo da, ISO 11469 zigiluaren edo horren zigilu baliokide baten arabera, eta ezingo du eduki birziklatzea eragotz dezakeen materialik.	La empresa adjudicataria deberá usar materiales que, además de asegurar el cumplimiento de los requisitos generales que marque el presente Pliego Técnico, tengan un menor impacto ambiental, tanto en su fabricación como en su uso y posterior fin de vida. En el caso de utilizar materiales de madera, estará prohibido el uso de especies amenazadas recogidas en el CITES (Convention International Trade of Endangered Species) y será obligatorio disponer de la documentación que muestre el origen de la madera (especies y procedencia) de los elementos nuevos (no así en los que sean de segunda mano). En caso de utilizar materiales de plástico, éste deberá estar marcado de acuerdo con la ISO 11469 o equivalente, y no debe tener otros materiales que impidan su reciclado.
Udalak eskubidea izango du, gauzatze-epean zehar, enpresa esleipendunari honako agiriak aurkez ditzala eskatzeko: egurraren jatorria egiaztatzen duten agiriak, 11469 ISO edo baliokidea edota materialek betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten bestelako agiriak.	El Ayuntamiento se reserva el derecho a solicitarle a la empresa adjudicataria que presente, en fase de ejecución, la siguiente documentación: la documentación acreditativa del origen de la manera, la ISO 11469 o equivalente y/u otra documentación que acredite el cumplimientos de los requisitos exigidos respecto a los materiales.
6. LANGILEAK	**6. PERSONAL**
Une oro, langile hauek egongo dira, gutxienez:	En todo momento, la dotación mínima de personal será:
- Enpresako arduraduna, kontratuaren	- Persona responsable de la empresa, que deberá

7899n IX 2013-11

arduradunarekin etengabeko harremana izan beharko duena. Enpresaren arduradun hori izango da Donostiako Udalaren solaskide bakarra, eta hari dagokio enpresa esleipenduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean ematea.	estar en contacto permanente con el responsable del contrato. Esta persona responsable de la empresa será el interlocutor único con quien se relacionará el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y a quien corresponderá la facultad de impartir directamente las órdenes e instrucciones de trabajo al resto de trabajadores de la empresa adjudicataria.
- Kontxako hondartza: 1 arduradun eta 4 langile.	- Playa de la Concha: 1 encargado/a y 4 trabajadores
- Ondarretako hondartza: 1 arduradun eta 6 langile.	- Playa de Ondarreta: 1 encargado/a y 6 trabajadores
- Zurriolako hondartza: 1 arduradun eta 4 langile.	- Playa de Zurriola: 1 encargado/a y 4 trabajadores
Hondartza bakoitzeko arreta-zerbitzuaz arduratzen den pertsonak bermatu beharko du harpidedunekiko harremana eta komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialak izan daitezkeela.	La persona encargada del servicio de atención en cada playa deberá garantizar que la relación y comunicación con los abonados pueda realizarse los dos idiomas oficiales de la CAV.
Esleipendunak bere zuzendaritza eta kudeaketa jarriko ditu kontratuan, eta hura arduratuko da zerbitzua antolatzeaz, egiten dituen lanen kalitate teknikoaz eta egindako prestazio eta zerbitzuez, enpresa-arriskuak bere gain hartzen dituenez.	La empresa adjudicataria aportará su propia dirección y gestión al contrato, siendo responsable de la organización del servicio, de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados y que asume el riesgo empresarial.
Honenbestez, zerbitzuari zuzenduriko langileen zuzendaritza eta funtzionamendu ahalmena ez da esleipendunaren beste inoren eskumena. Udalak ez du inolako zuzendaritza ahalmenik enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeko jarritako langileen gainean: ez du langileak aukeratzeko gaitasunik izango, ez eta langileen oporrak, baimenak edota du lan-ordutegirik jartzeko ere.	Por ello, el poder de dirección y funcionamiento del personal destinado al servicio será competencia exclusiva de la empresa adjudicataria. El Ayuntamiento no ostenta poder de dirección alguna sobre los trabajadores de la empresa contratista destinadas a la ejecución del contrato: no tendrá capacidad para seleccionar trabajadores, ni para fijar las vacaciones y permisos de su personal, ni horario laboral alguno.
7. TASAK	**7. TASAS**
Udalak finkatuko ditu erabiltzaileei zerbitzu horiek jasotzeagatik kobratuko zaizkien zenbatekoak, zerbitzuak emateagatik eta udal jarduerak egiteagatik prezio publikoak arautzen dituen Ordenantzan eta hau urtero eguneratu daiteke.	El Ayuntamiento fija los importes por la prestación de estos servicios a los usuarios, en la Ordenanza reguladora de las tasas por la prestación de servicios y la realización de actividades municipales, las cuales pueden verse actualizadas año tras año.
2026ko denboraldirako tasak agiri honen 3. eranskinean zehaztu dira. Tasa hauek aldaketak izan	Las tasas para la temporada 2026 se especifican en el Anexo 3 del presente pliego. Estas tasas podrán

7899n IX 2013-11

ditzakete momentuan indarrean dagoen Ordenantza fiskala dela eta.	sufrir modificaciones año tras año, según la Ordenanza fiscal en vigor de cada momento.
Aulkiak alokatzeagatiko tasak ordaintzeko bi txanda ezarriko dira: goizean, 10:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean, 15:00etatik 19:30era. Aulki bakoitzaren ordainketa txanda bakoitzean ordainduko da.	A efectos de abono de las tasas por el alquiler diario de sillas, se establecen dos turnos: de mañana de 10:00 a 15:00 horas, y de tarde de 15:00 a 19:30 horas, debiendo exigirse el abono de cada silla en cada uno de los turnos.
Itzalkinarekin batera banatzen diren aulki ez dute sortuko tasa independente bat, hondartzen udal zerbitzuak aldez aurretik baimendutako zerbitzu berezien kasuan izan ezik (su artifizialen lehiaketa).	Las sillas con que se dota a los parasoles no devengarán tasa independiente, salvo en los servicios especiales previamente autorizados por el servicio municipal de playas (concurso de fuegos artificiales).
Etzaulkiak egunero alokatzeagatiko tasek egun osoa hartzen dute kontuan (10:30-19:00).	Las tasas por el alquiler diario de tumbonas contemplan toda la jornada (10:30-19:00 h).
Tasen bitartez jasotako dirua Udalarentzat izango da. Enpresa esleipenduna izango da aipaturiko tasen diru-bilketa zaintzeko arduraduna.	La recaudación de las tasas será a beneficio del Ayuntamiento. La empresa adjudicataria será responsable de la custodia de la recaudación de las citadas tasas.
Enpresa esleipendunak erabiltzaile bakoitzari dagokion tasa kobratu eta bildutako kopurua Udalaren kontura transferitu beharko du. Enpresa esleipendunak hilero egin beharko du, banku-transferentzia bidez, eta transferitutako zenbatekoak justifikatzen dituen txosten batekin batera joango da.	La empresa adjudicataria deberá cobrar la tasa que corresponda a cada usuario y transferir la cantidad recaudada a la cuenta del Ayuntamiento. La empresa adjudicataria deberá realizarlo mensualmente mediante transferencia bancaria e irá acompañada de un informe justificativo de los importes transferidos.
8. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK	**8. OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA**
Enpresa esleipendunak, urte bakoitzaren azaroaren 15a baino lehen, denboraldiari buruzko txosten bat aurkeztu beharko du, honako alderdi hauek jasota:	La empresa adjudicataria deberá presentar antes del 15 de noviembre de cada anualidad un informe dando cuenta del desarrollo de la temporada que contendrá referencias sobre:
- Zerbitzu bakoitzaren erabiltzaileen datu estatistikoak, eguneko alokairuak barne. - Langileen zerrenda, dagozkion ziurtagiriekin. - Erabilitako inprimakien laginak. - Argazkiak, non hondartzak muntatuta ikusiko diren. - Erabilitako materialaren zerrenda eta egoera. - Zerbitzuak irauten duen bitartean materiala konpondu, birjarri eta erosteketen inguruko datuak.	- Datos estadísticos de usuarios de cada servicio, incluidos los alquileres diarios. - Relación de personal empleado, con los justificantes correspondientes. - Muestras de los impresos utilizados. - Fotografías de las playas montadas. - Inventario del material empleado y su estado. - Relación de los datos respecto a la reparación, reposición y compra de material durante la duración del servicio.
- Desagertutako zerbitzuaren material guztiaren	- Inventario de todo el material del servicio

7899n IX 2013-11

zerrenda; ahal bada, horren zergatiak zehaztuta. - Material hondatuak kudeatzeko moduaren justifikazioa. - Sortutako hondakin arriskutsuak zuzen kudeatu direla egiaztatzeko dokumentuak. - Jazotako gorabehera aipagarrienen zerrenda. - Zerbitzua hobetzeko edo ingurumen kudeaketa hobea egiteko iradokizunak. - Zerbitzua hobetzeko egindako berrikuntzak, hala badagokio.	desaparecido, en su caso, especificando las causas. - Justificación del modo en el que se han gestionado los materiales deteriorados. - Documentación que justifique la correcta gestión de los residuos peligrosos generados. - Relación de incidentes más notables que se hubiesen producido. - Sugerencias en orden a una mejor prestación y una mejor gestión ambiental. - Novedades introducidas, en su caso, en orden a una mejor prestación.
Enpresa esleipendunak kontratuaren arduradunak zerbitzu hauek emateko adierazitako baldintzak beteko ditu, eta konpromisoa hartuko du erabiltzaileei ezarritako arauak betearazteko eta hautemandako balizko arau-hausteez (hala nola, erabilera desegokia edo tratu txarrak) Udalari ohartarazteko.	La empresa adjudicataria se ajustará a las condiciones señaladas por el responsable del contrato para la prestación de los servicios, comprometiéndose a hacer cumplir al usuario las normas establecidas, y a advertir al Ayuntamiento sobre las posibles infracciones que detecten (tales como, usos indebidos o mal tratamiento).
Enpresa esleipendunak pertsona guztiei eman beharko die zerbitzua, gutxieneko portaera arauak errespetatzen ez dituztenei ez emateko eskubidea beretzat gordeta.	La empresa adjudicataria deberá a prestar el servicio a todas las personas, reservándose el derecho de otorgarlo a aquellas que no observen las normas mínimas de conducta.
Enpresa esleipendunak eguneko erabiltzaileei zerbitzu bakoitzean txartel bat eman beharko die, ordainketaren ziurtagiri modura. Txartelak Udalak aurrez zehaztutako diseinua izango du, eta papera % 100 birziklatua izango da. Abonuko itzalkinen erabiltzaileei dagokienez, Udalak banatuko du ordainketaren ziurtagiria, eta esleipendunak beharrezkotzat jotzen duen aldiro eskatuko du, zerbitzua eman aurretik.	La empresa adjudicataria deberá entregar a los usuarios de alquiler diario el ticket acreditativo del abono efectuado por cada servicio, conforme al diseño predeterminado por el Ayuntamiento e imprimido en papel reciclado 100%. Y respecto a los usuarios de los parasoles de abono, el justificante de pago lo entregará el Ayuntamiento y el adjudicatario lo exigirá cuantas veces lo consideré oportuno antes de efectuar el servicio.
Bi ordainketa ziurtagiri horiek erabiltzailearentzako informazioa edukiko dute, eta Udalak arautuko ditu.	Ambos modelos de justificante de pago incorporarán información para el usuario, y serán regulados por el Ayuntamiento.
Esleipendunak erabiltzaileari tratu adeitsua ematen zaiola zainduko du, eta langileak, hondartzan dauden bitartean, uniformez jantzita egongo dira. Uniformea aulkiez, itzalkinez eta etzaulkiez arduratzen den pertsona berehala identifikatzeko moduan diseinatuko da. Uniformea honako hauek osatua egongo da: kamiseta bat, ahal bada urdina eta/edo zuria, identifikazio anagrama inprimatuarekin; galtza motz edo luze bat, ahal bada itsas urdin kolorekoa; hondarretan ibiltzeko zapata	Asimismo, cuidará que el trato con el usuario sea esmerado; el personal estará en todo momento uniformado durante su permanencia en la playa. El uniforme se diseñará de tal forma que permita una perfecta identificación de la persona empleada encargada de las sillas, parasoles y tumbonas. Constará de camiseta, con preferencia azul y/o blanca, con anagrama impreso que le identifique; pantalón corto o largo, de un solo color preferencia azul marino; calzado apropiado para la arena; y

7899n IX 2013-11

egokiak; eta txano bat, ahal bada kamiseta edo galtzarekin ondo ematen duena.	gorro, en su caso, a tono con la camiseta o pantalón.
Enpresa esleipendunak arduradun bat jarriko du hondartza bakoitzean, zerbitzuak emateari lotutako edozein erreklamaziori erantzuteko jendaurrean egongo dena.	La empresa adjudicataria deberá situar en cada playa una persona responsable para atender al público en cualquier reclamación relativa a la prestación de los servicios.
Enpresa esleipendunak (ezinbesteko arrazoirik ez bada behintzat) erabiltzeko prest izango ditu instalazio guztiak, denboraldiaren hasiera gisa ezarritako data baino egun bat lehenago.	La empresa adjudicataria, salvo causa de fuerza mayor, deberá tener totalmente preparadas para su uso todas las instalaciones, el día anterior al señalado como inicio de la temporada.
Enpresa esleipenduna berea den materiala segurtasun eta garbitasun baldintza egokietan eduki beharko du, bere kontura eta denboraldi osoan, eta haren erantzukizuna izango da xede horretarako behar diren elementuak aldatzea, dagokion kopuruan, haien hondamenaren arrazoia edozein dela ere, kontuan hartuta ekintza bandalikoak, denboraleak edo bestelakoak.	La empresa adjudicataria deberá a mantener a su costa el material que sea a su cargo en perfectas condiciones de uso, seguridad y limpieza durante la temporada, siendo su responsabilidad la sustitución de los elementos necesarios y en las cantidades precisas para el fin indicando, cualquiera que sea la causa que haya motivado su deterioro, incluidos actos de vandalismo, temporales o similares.
Toldoen eta eguzkitakoen makilak denboraldi bakoitzean margotuko dira, eta aulkiak, berriz, beharrezkoa den aldiro, horretarako udal irizpidea nagusi izanik. Margotzeko erabilitako pinturek I. motako ekoetiketaren batean ezarritako COV, COSV eduki irizpideak eta substantzia eta nahasketa arriskutsuen irizpideak bete beharko dituzte.	El pintado de los palos de toldos y sombrillas se hará cada temporada y las sillas cada vez que sea necesario, prevaleciendo el criterio municipal. Se deberán utilizar para ello pinturas que cumplan los criterios de contenido de COV, COSV y de sustancias y mezclas peligrosas establecidos en alguna eco-etiqueta de tipo I.
Enpresa esleipendunak, behin denboraldia amaituta, bost egun balioduneko epea dauka erabilitako material eta osagarri guztiak kentzeko eta bere lokaletan gordetzeko, eta behartuta dago zerbitzu horiek emateko hondartzetan okupatutako sektoreak libre uztera eta hustera.	La empresa adjudicataria dispone de cinco días hábiles, una vez finalizada la temporada, para proceder a la retirada y almacenamiento en sus locales de todo el material y accesorios empleados, y deberá a abandonar y dejar libre y vacío el sector de las playas ocupado por la prestación de estos servicios.
Udaletxeak ez du, inola ere, erantzukizunik izango, zerbitzuaren kudeaketan erabilitako elementu edo materialak lapurtu, hautsi edo kaltetzearen ondorioz enpresa esleipendunaren interesei eragindako kalte eta galeretan.	En ningún caso el Ayuntamiento será responsable de los daños o perjuicios que pudiesen ser provocados a los intereses de la empresa adjudicataria como consecuencia de robo, roturas o desperfectos del material o de los elementos empleados en la gestión del servicio.
Materialen mantentze lanetan, garraioan eta kontratu honen xede diren zerbitzuak ematean sortutako gastuak enpresa esleipendunaren kargura izango dira.	Todos los gastos de mantenimiento de materiales, su transporte, desplazamientos y cualquier otro que origine el desarrollo de la prestación de los servicios objeto del presente contrato, serán por cuenta de la empresa adjudicataria.

7899n IX 2013-11

Enpresa esleipendunak garbitasun, segurtasun eta higiene egoera egokian eduki beharko ditu zerbitzuak emateko instalazioez okupatutako hondartzen sektoreak, eta, hala behar izanez gero, udalerrian kontratatutako garbiketaz baliatuko da.	La empresa adjudicataria deberá mantener en buen estado de limpieza, seguridad e higiene, la porción del sector de las playas que ocupe con las instalaciones para la prestación de estos servicios, complementando, si fuese necesario, la limpieza habitual contratada por el municipio.
Enpresa esleipenduna, kontratuak irauten duen bitartean, pertsonei edo objetuei eragindako kalte eta matxura guztien erantzulea izango da. Beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu konponketak ahalik eta lasterren egiteko, erabili ezin den materiala gutxieneko bat izateko; horrela, zerbitzuak normaltasunez ematea bermatuko du.	La empresa adjudicataria responderá de todos los desperfectos y daños que se ocasionen a personas y objetos durante el período que dure el contrato. Tomará las medidas oportunas para que las reparaciones se efectúen de forma que haya el mínimo de material fuera de uso y por el mínimo plazo de tiempo, de manera que se garantice la prestación habitual de los servicios.
Denboraldia hasi baino hilabete bat lehenago, kontratuaren arduradunak, enpresa esleipendunarekin batera, material erabilgarriaren egoera eta kopurua egiazta dezakete, eta enpresa esleipendunak zerbitzua zuzen emateko behar diren elementuak birjartzeko eta/edo konpontzeko konpromisoa hartuko du.	En un plazo de un mes anterior al inicio de cada temporada, el responsable del contrato junto con la empresa adjudicataria podrán comprobar el estado y cantidad del material disponible, comprometiéndose la empresa adjudicataria a reponer y/o reparar los elementos necesarios para la correcta prestación.
Bat-bateko gorabeheren ondorioz instalazioak lekuz aldatu behar badira, enpresa esleipendunak bere gain hartuko du aldaketa, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.	La empresa adjudicataria deberá a soportar el cambio de emplazamiento de las instalaciones por circunstancias sobrevenidas, sin derecho a indemnización alguna.
Enpresa esleipendunak indarrean dauden ordenantzek eta araudiek laneko segurtasunean eta higienean eskatutako elementu guztiez hornituko ditu bere langileak.	La empresa adjudicataria dotará a su personal de todos aquellos elementos exigidos por las ordenanzas y disposiciones vigentes que en materia de seguridad e higiene en el trabajo resulten de aplicación.
Langile horiek kontratu honetan zehaztutako lanak azkar eta eraginkortasunez egiteko gaitasuna izango dute, behar besteko ahalak edukita kontratatutakoa exekutatzeko eta udal zerbitzu teknikoek emandako aginduak betetzeko.	Dicho personal tendrá la capacidad de organizar de forma rápida y eficiente los diferentes trabajos especificados en este contrato, con poderes suficientes para ejecutar lo contratado y cumplir las órdenes que le sean comunicadas por los servicios técnicos municipales.
Beharrezkoak diren lokalak, hala nola, biltegiak, konponketa tailerrak, garajeak eta aparkalekuak, enpresa esleipendunaren kontura izango dira.	Los locales necesarios, tales como almacenes, talleres de reparación, garajes o aparcamientos, serán por cuenta de la empresa adjudicataria.
9. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK	**9. SISTEMAS DE GESTIÓN MEDIO AMBIENTAL**

7899n IX 2013-11

Materialak garbitzeko, ingurumenarentzat kaltegarriak ez diren produktuak erabiliko dira, ahal den neurrian, desinfekzioa bermatuz.	Para la limpieza de los materiales se utilizarán productos no agresivos para el medio ambiente, en la medida de lo posible, garantizando la desinfección.
Garbiketa-lanetan bildutako hondakinak ahalik eta gehien bereiziko dira, eta behar bezala kudeatuko dira. Bereziki azpimarratuko dira toxikotasun edo arriskuren bat duten produktuen ontziak, kudeatzaile baimenduarekin kudeatuko direnak, eta Udalak kudeaketa horren justifikazioa eskatu ahal izango du.	Los residuos recogidos durante las labores de limpieza se separarán al máximo y se gestionarán adecuadamente. Se hará especial hincapié en los envases de productos que presenten alguna toxicidad o peligrosidad, que se gestionarán con gestor autorizado, pudiendo el Ayuntamiento solicitar la justificación de dicha gestión
10. IKUSKARITZA ETA KONTROLA	**10. DIRECCIÓN Y CONTROL**
Udalak ez du inolako zuzendaritza ahalmenik izango kontratua egikaritzeko eginkizuna duten enpresako langileen gainean: ez du izango langileak hautatzeko, oporraldiak ezartzeko eta langileen baimenak eta ordutegiak zehazteko ahalmenik.	El Ayuntamiento no ostenta poder de dirección alguna sobre los trabajadores de la empresa contratista destinadas a la ejecución del contrato: no tendrá capacidad para seleccionar trabajadores, ni para fijar las vacaciones y permisos de su personal, ni horario laboral alguno.
Donostiako Udalak beretzat gordetzen du enpresa adjudikaziodunak egunero egiten dituen lanak bere kabuz edo bere ordezkariek zaintzeko ahalmena, bai eta kontratu honetan esku hartzen duten baliabide materialak eta giza baliabideak ikuskatzeko ahalmena ere, kontratuan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko.	El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián se reserva la facultad de vigilar por sí, o por personal que le represente, las diferentes labores realizadas diariamente por la empresa adjudicataria así como la inspección de los medios materiales y humanos que intervienen en el presente contrato a fin de garantizar el cumplimiento de las condiciones establecidas en el contrato.
Kontrol horren ardura duten udal langileen jarraibideak eta erabakiak lotesleak izango dira enpresa esleipendunarentzat.	Las instrucciones y decisiones del personal municipal responsable de este control serán vinculantes para la empresa adjudicataria.
Udal zerbitzuek irizpideak ezartzeko ahalmena izango dute, ezohiko edo aparteko jarduerak egiten direnean, hala nola hainbat arrazoirengatik suertatutako ekimen berezietan (ekitaldiak hondartzetan, denboraleak edo bestelakoak).	Será facultad de los servicios municipales establecer los criterios que, en cada momento haya que adoptar referido a actuaciones no habituales o extraordinarias, tales como actuaciones especiales por causas diversas (eventos en las playas, temporales u otros).
11. ZERBITZU PUBLIKOA	**11. SERVICIO PUBLICO**
Kontratu honen xede den zerbitzua (denboraldiko abonatuen arreta, itzalkinetako, aulki eta etzaulkien eguneko alokairuaren zerbitzua) zerbitzu publikoa denez, Donostiako Udalak bere	El servicio objeto del contrato (servicio de atención a abonados de temporada y alquiler diario de parasoles, sillas y tumbonas) al ser un servicio público, queda asumido por el Ayuntamiento de

7899n IX 2013-11

egin du. Bete beharreko araubide juridikoa, ekonomikoa eta administratiboa agiri honetan, Baldintza Administratibo Zehatzen Agirian eta lizitazioa arautzen duten gainontzeko dokumentuetan zehaztutakoa izango da. Serbitzua zerbitzu publiko batena denez, direnak direlako zerbitzuek ondo dihardutela bermatzeko beharrezkoak diren polizia-ahalmenak gordeko ditu beretzat Administrazioak.	Donostia-San Sebastián como propio de la misma. El régimen jurídico, económico y administrativo será el establecido en los presentes pliegos, en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y en los demás documentos que rigen la licitación. Como el servicio recae sobre un servicio público, la Administración conservará los poderes de policía necesarios para asegurar la buena marcha de los servicios de que se trate.
12. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA BETETZEA Enprea esleipenduna, Kargudun izaera duen heinean, neurri teknikoak zein antolakuntzazkoak aplikatzeko berme nahikoak eskaini behar ditu, tratamendua bat etor dadin 2016/619 Erregelamenduaren eskakizunekin (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta interesdunen eskubideak bermatu daitezen. Kargudunak egin beharreko tratamendua arautzeko kontratua sinatuko da DBEOren 28.3 artikuluan zehaztutako xedapenekin. 4. Eranskin moduan bideratu den “Datu Pertsonalen tratamendurako enkargua” izeneko agiria eratuta txertatu egin da, eta lizitazio honetan esleipedun hori sinatu eta bete beharko du.	**12. CUMPLIMIENTO DE LA PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES** La empresa adjudicataria, en su condición de Encargado de tratamiento de datos, deberá ofrecer garantías suficientes para aplicar las medidas técnicas y organizativas apropiadas, de manera que el tratamiento sea conforme con los requisitos del Reglamento (UE) 2016/679, (Reglamento general de protección de datos) y garantice la protección de los derechos de los interesados. El tratamiento por el Encargado se regirá por un contrato en la que se recogerán las estipulaciones contenidas en el artículo 28.3 RGPD. El documento denominado "Encargo de tratamiento de Datos de Carácter Personal" se inserta como anexo 4 de este documento, y en esta licitación la empresa deberá cumplimentarlo y firmarlo
13. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA Esleipendunak isilpean eta isilpean gorde beharko du kontratua betetzean jakin dezakeen edozein datu, batez ere datu pertsonalak. Datu horiek ezin izango ditu kopiatu edo erabili plegu honetan agertzen den helburuaz bestelakoetarako, ezta beste batzuei laga ere, ezta kontserbatzeko ere. Betebehar horri bost urteko epean eutsiko zaio, informazio hori jakiten denetik zenbatzen hasita, SPKLren 133.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.	**13. CONFIDENCIALIDAD DE LA INFORMACIÓN** La adjudicataria queda expresamente obligada a mantener absoluta confidencialidad y reserva sobre cualquier dato que pudiera conocer con ocasión del cumplimiento del contrato, especialmente los de carácter personal, que no podrá copiar o utilizar con fin distinto al que figura en este pliego, ni tampoco ceder a otros ni siquiera a efectos de conservación. Este deber se mantendrá durante un plazo de cinco años desde el conocimiento de esa información de acuerdo a lo establecido en el artículo 133.2 de la LCSP.

7899n IX 2013-11

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos

Urdaneta, 13 - Tel. 010 - 943481000 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostian, sinaduraren datan

Hiri Zerbitzuetako Burua

Jurdana Arruabarrena Jimenez

7899n IX 2013-11

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Olatz Yarza Garagorri (21/04/2026 12:43 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : LN0P-KZI2-HLIU-3UKA